

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO DOKUMENTUEN KUDEAKETA INTEGRALARI ETA ARTXIBOEI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN GAINEKO TXOSTENA

Txosten hau igorri da, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak hala eskatuta, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak (otsailaren 18ko 4/2005 Legeak) 21. artikuluan Emakunde-Emakumearen Euskal erakundeari esleitutako eskumenaren arabera.

Txostenaren helburua da 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan eta generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko zuzentarauan eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu eta desberdintasunak ezabatzeko neurriak sartzeari buruzko zuzentarauan (biak ere 2012ko abuztuaren 21eko Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez onartuak) ezarritakoa era egokian aplikatzen dela egiaztatzea eta, horren harira, hobekuntza-proposamenak egitea.

Txostenean landuko den Legearen proiektuaren xedea da, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo eta agiri publiko eta pribatuen kudeaketa, tratamendua eta antolamendua arautzea, honako hauek bermatzeko: erakundeen funtzionamendu hobea, kudeaketa publikoaren gardentasuna, informazioaren berrerabilpena, herritarren eta administrazioen eskubideen zaintza, eta EAEko esperientzia kolektiboa jasotzen duen agiri-ondarearen eskualdaketa.

Horrenbestez, xedapen orokor bat da, eta generoaren arabera duen eraginari jarraikiz ebaluatu behar da, lehenengo zuzentaruaren 2.1. zenbakian ezarritakoa kontuan hartuta. Horretarako, araua sustatu duen organoak generoaren araberako eraginari buruzko txostena igorri du, I. eranskinean aurreikusitako baldintzei jarraikiz, eta lehenengo zuzentaruaren 3. eta 4. zenbakietan xedatutakoaren arabera.

Igorritako **txosten** horretan Legearen aurreproiektuaren deskribapen orokorra egiten da.

Era berean, txostenari jarraikiz, Legearen aurreproiektuaren funtsezko xedea administrazioaren kudeaketari eta teknikari buruzkoa denez, ez da ezarri helburu orokor eta zehatzik emakumeen eta gizonen desberdintasun-egoerak hobetu daitezzen.

Generoaren arabera eraginari buruzko aurretiazko ebaluazioa aztertuta, txostenean jasotako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Artxibo Historikoko zerbitzu eta instalazioetara sartzen diren erabiltzaileen artean gehiago dira gizonak, baina EAEko artxiboetako eremu profesionalari erreparatzen badiogu, emakumeak dira nagusi. Datuen eskuragarritasuna dela-eta, txostenak honako hau gomendatzen du: *“Lege hau aplikatuko den eremuetan datu estatistikoak sexuaren arabera berezita jasotzeko ahalegina egingo da”*.

Era berean, adierazi denez, ez da uste Legearen aurreproiektuak eragin zuzena izango duenik arau sozialak eta balioak gainditu edo aldatzeko orduan, baina bai uste da *“agirien ondarearen balioaz jabetzeko eta agiriok ikusi eta gozatzeko kontzientzia soziala sustatuko dela”*.

Egia da Legearen aurreproiektuak esangura apala duela generoaren ikuspegitik, haren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko artxiboen sistema eta dokumentu-ondarea arautzea baita, horretarako Euskal Kultur Ondarrari buruzko Legea (uztailaren 3ko 7/1990 Legea) indargabetuta.

Nolanahi ere, emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legeak (otsailaren 18ko 4/2005 Legeak) ezartzen duena betez, jarraian **gomendio batzuk egingo dira, kontuan har daitezzen:**

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak (otsailaren 18ko 4/2005 Legeak) 23. artikuluan xedatzen duena bermatze aldera, berariaz gogorarazi nahi da

zuzendaritza-organoetan eta kide anitzeko organoetan prestakuntza, trebakuntza eta gaitasun egokia duten emakume eta gizonen partaidetza orekatua sustatu beharko dela. Kasu honetan, artikulua hori aplikatu behar da bai Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen Kontseiluan, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazioaren Baloraziorako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora Jotzeko Batzordean.

- Bestalde, zaindutako agirietatik atera daitekeen informazioa oso interesgarria izan daiteke emakumeen egoerak izan duen bilakaera ezagutzeko, eta, beraz, honako hau proposatu da: agirien eta artxiboen zaintzak aukera eman dezala horietan jasotako datuak erabil daitezela, ustiatu ondoren, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16 e) artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Hori dela eta, Aurreproiektuaren 14. artikuluan aipatzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen Sistemaren eginkizunen artean aipatu beharko litzateke zaindutako agirietako informazioa hobeto ezagutu eta erabiltzeko ikerketak egitea, bai eta informazio hori hedatzea ere, emakumeen eta gizonen arteko egoerari eta, hala badagokio, desberdintasun sozialei bereziki erreparatuta.
- Era berean, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16.e) artikulua betez, gogoratzekoa da agiriak eskuratzeko eskubideari buruzko 21. artikuluan ezarritakoarekin lotuta, zerbitzua emateko ardura duen erakunde bakoitzak, gardentasunaren urteko txostena egitean, berariaz jaso behar duela informazioa eskuratu duten eskatzaileen sexu-aldagaia.

Azkenik, Legearen aurreproiektu honek hizkuntzaren erabilera ez sexista baliatzeko egin duen ahalegina balioetsi behar da.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 27a